

MARINON PASADISUAK

Bein Marino peskan ebillela, Guardia zebil ezan bat urreratu ei jakon.

—Mariño, badaukak peskarako lisentzia?

—Peskarako lisentzia!

—Bai. Peskan eitzeko lisentzia izan.

—Lisentzia ez. Peskan biar dana dok, pasientzia.

• • •

Beste bein be, erreka bazarrian peskan ebillela, Arrak, txitxarak, eta gañerako koko klase guztiak probatu ondoren, ogixakin asi ei zan, baña iñolar be ez ei eben pikatzen. Denpora aurrera ta ez loina ta ez barga, ez ei eban ezer arrapau. Orduan, asi ei zan inguruan euli arrapatzen. Baña eulixekin be alperrik. Arraiñak ez euken pikatzeko asmurik egun orretan.

Amorratu zan Mariño arraiñ egosgorrak ezerkin tentatu ezirik, ta eskua boltilora sartu ta errial bat atara ei eban. Ta, diño errekara jaurtiaz:

—Txitxararik ez dotue nai, arrik pe ez, eta eulirik eta ogirik pe bai, ta, aspertu nok eta, aiba erriala ta erosi zeuk nai dotuena.

• • •

Domeka gabe batian, ayuntamiento ostian ixillikuetan txixa arrara bat eitsen euala. Atzetikara agertu jakon Alfiler aguazilla, ta:

—Mariño, peseta biko multia emen txitxa eitsiarren.

Mariño baterra-batera, txixa-eizari lagaaz:

—Autsa peseta bat, erdi bakarrik eñi juat eta.

• • •

Egun baten, beste batekin berbatu zan. Berotu ziran besakadeta eldu arte. Baña, Mariño pelotari izana ta errebeskada ederra eukanet, betondoko bategu botu eban ankar-gora.

Bestiak, jaiki zanian, eskuak betondora eruanaz:

Au etok olan gelditxuko!

Ta, Mariño:

—Ez orixe. Ez jak olan gelditxuko. Aunditxu eñigo jak.

• • •

Eibarren batan neurrit gañerako burua eukan bat. Errixan nauka berbakizun ipintzen eban. Gitzajuaren aganbariaz zala-ta, amaika jardun ta amaika etabaida izaten ziran. Baitxa, iñoiz berari preguntau be, ia baibenen bat izaten ebanian zelan maniatzen zan jausi barik ekilibrixua zaintzeko. Beste batuek, ia buruko-miña eukanian zenbat aspirta artzen zituan; eta orrelakuak.

Bein, pelukerixa batian ulia moztzen esala, sartu zan beste bezero bat eta barrukaldera begiratu «Bixar arte» esan da alde eban. Orduan, pelukerik:

—I, Manu, auxen bakarrik jaukat —esan zetsan aterik.

—Orretxegaitik pa, bixar arterañoak badaukak.

Urte mordoxka bat da au pasau zala. Mariño pelotan onenian ebillela. Añ onenian ete, danak espero eban txapel-dun izatera elduko zala ta berak pe bai itxuria. Ba, bein, empresariuari esan ei zetsan:

Zu, Bidarte, ni iñoizko denporan txapel-dun izatera etzen banaitz, Urtixa Buruandixan txapela nai neuke.

—Urtixana?

—Bai.


—Zer dala-ta baña? —preguntau zetsan Bidarte empresariuak.

—Ba, aren txapelak barrukaldetik daroian ugulakin gerriko bat eixia nai neuke.

• • •

Pelotan jokatzera kantxara urten zan batian, eztagitu zelan, baña zabaldu zan aurretiko egunian mozkortuta ibilli zala Mariño. Eta ori jakirik, zer esanik pe ez; jentia, dirua bere kontra jokatzen ari zan, ugari gañera.

Orraitxiok, lelengo tantuetan, ondo be ondo jokatu eban eta bera zorian aurretik. Baña, jentiak, dudu barik galdu biar ebala-ta, dirua bere kontra jokatzen eban. Ze, baziran esaten ebenak, anken gañian ostostan ebillela. Mariño, barriz, jokua, geruago ta eutsuagua ekarren. Eta,



Eskerretik asi ta lenengua Marino. (Foto Ojanguren).

jentiazen ustien kontra, ta jakirna, baita kontradixuana be. Danen arrigarerako, pelota-partiduori errez irabazi eban.

Amaitxu zanian, aisikide bat urreratu jakon esanaz:

—Sinistiak pe kontuak jaukat, olako partidori etok eñi eure bizi guzian. Ori zuan jokatu. Zelan konpondu aitzakenera arte utsik barik eusteko?

Mariño igarri zetsan nora zorian. A be, mozkortuta euan ustera.

—Zelan eñigo najuan ba us? Neukan mozkorrakin, lantxian lau pelota ikusten najitxuan, eta nai ta nai ez, txortara besakadia botatu, lauretarikoren bat azertzen najuan.

• • •

Denpora ardetxetan zan, Ondarrabiko taberna batian baskaltzen euala, sartu ei ziran frantzez kuadrilla bat. Ta, eura dauken konplimentu oitsurat, pasauzala danak: «Bon profits» eta «Bon profits» etetzeka. Gero be, sukaldera et-pazan, komuna edo danalokora pasatzen ziran bakotxian: «Bon profits». Eta aribeste «Bon profits» ordañez eskerrak emoten buruko ulietarañoak aspertuta euan gure Mariño. Beti «Bon profits» eta «Bon profits».

Beriz be, jaiki zan bat norabaitz, baña Mariño berekautan: «Entzun biar destak entzuttekoren bat, bala.

Frantzea, ostera be pasau da ezanaz: —Bon profit.

Mariño:

—Bestetik artik.

Frantzezak, nai beleske edo aitxu, ta:

—Merci.

• • •

Gerratian, Mariño be sartu-urten bat eñi eban kartzelara. Estazioan, trenera sartzerakuan, tren bertatik urten eban ezan bat gelditxu zan, urritxuta begira. Ta, Mariño:

—Or ba, zelan diran gauzak. Beñora ezkeriokan pelotarako gauta ezinintzalkuan, baña banajaroiek... Ez jakizat nora; kontraturik ez jested eñi da.

• • •

Karselan, Apotxiano, errepublika denporan konsejal izan dakua, beti ei ebillen eskat:

—Ni, preso? Nik ez juat barren ezer

eñi... Ni ez nok barren ezertan sartu... Ni ez nok ezer...

Mariño:

—I, ez aitela ezer? Da, ni zer? Nik zer jaukat ba txarrik? Azido-nitrikua nok ni ala?

• • •

Laister, Mariño beriz azaldu zan Eibarrera.

Kalera urten da lelengo agerpena «Astelena» frontoira izan zan. Sartu zanian, berakin toianak esan ei zetsan:

—Au, lengo modu-moduan dagok.

—Ez —erantzun zetsan Mariño—: kuadru bat gelago dagok.

—Ez, gizona. Zelan egongo dok ba len baño kuadru bat gelago? Len be amaika zituan eta oin be amaika dagotak. Mariño.

—Len hal amaika, baña oñi amabi. Ertok ikusten ala, bat gelago dagona?

—I, bistatik endredautu etorri aiz. Nik amaika ikusten jitzuat.

Ta egiza zan. Belan, bai, amaika kuadru. Baiñan, goivan, beste bat zeguani Generalissimo Franco'ren kuadrua.

Orregaitik, amabi kuadru «Astelena».

Juan San Martín.